

Hiru erregeak greban

Hondarribia, 42. zk., 1990-12/1991-01: 5.

Guk lagun bat dugu Kopenhagen-en.

Hondarribiatik urrun geratzen den hiria da hau, baina hango Karl adiskidea hemendik sarritan pasatzen denez, zazpi urte beteak dituen gure biloba Nikolak, Abalzisketa non dagoen ez badaki ere, azkar bilatu eta aurkituko dizu mapan Kopenhagen; Hondarribia dagoen Europako mapa bertan, gorantz bere hatz txikiarekin itsasertza jarraituz irla pilo batez inguratua aurkitzen duen arte.

Garai batean urrun zen hori!, baina orain haurrak aise egiten dituzte irudimen modernoa lagun honelako bidaiak hatz erakuslearekin.

Joan den urte arte ez zuen hain gora inoiz begiratu, baina orain!...

Joan den urtean zer gertatu zen?

Banoa horretara.

Gure hiru erregeak, Gaspar, Meltxor eta Baltasar; herrira egiten duten sarrera berezia dela badakizute, iluntzean itsasoz ere heltzen ikusten dituzte haurrak... eta gero, gaua ondo beltzen denean etxeko leihoetatik opariak nola demontre sartzen dituzten, hori haurren misteriozko pentsabideetatik pasatzen da nolabait.

A!, zein ederra den haurren Erregetako magia!...

Kopenhagen-eko Karl, gerra garaian exilatutako nire lagun Mauxion semea da, Mauxio gerrondoan hemendik gu bezala irten, gero hiri hartako alaba batekin ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten. Kamiolari bezala egin zuen lan urtetan, eta zaharkitu zenean seme gazteenari, Karl-i pasa zion kamioia. Hemendik aita, nire adiskide mina, pasatzen zen bezalaxe ohitu da Karl gaztea ere Madrileko bidean hemen noizbehinka geratzen, bisitan.

Igaz hemen bazkaritan izan genuen abenduaren erdialdera, eta haurrei jostailu bana ekarri zien; sei urteko Nikolari kamioi urdin luze horietako bat, eta bi urteko Garaziri panpin zoragarria, eta Erregetarako gorde genizkien. Eguna heldu zenean, geuk balkoian jarri eta hurrek berebiziko harrera egin zieten hurrengo goizean.

Batez ere mutikoak, hemen ez baitago marka honetako kamiorik!

Karl-eri joan den udan egin zigun bisitaldian hau esan genionean, agindu zigun, mutikoaren zaletasuna halakoa bazen, aurtengo Erregetarako irten berria zen marka bereko eta trailer eta guzti izugarri ederra zen bat ekarriko ziola, hala esan zuen orduan, eta geroztik bi aldiz pasa eta gogarazi digu bere eskaintza.

Oraindik abenduaren erdialdera deitu gaitu telefonoz, esaten prest zeukala Erregetako egindu ziguna, eta Gabonak ondoren izango genuela Hondarribian.

Gabonak heldu eta harrez gero zai geratu gara gu biok, erregeak guretzat balira bezalaxe; zeren eta ez da gure ilusio bakarrik, geu izan gara mila aldiz Nikolari eskatu diogunak aurtengo Erregeei joan den urteko marka bereko kamioia, baina handi-handiago bat eskatzeko!... Halaxe idatzi du mitikoak eskutitz polita, marrazki eta guzti,

bota du buzoira abenduaren 4ean ohitura den bezala postariak astoz heldu denean. Hala, eta hurrengo egunean, urtarrilak bost, gaur!, telefono deiaren zai-zai gaude...

Heldu aurretik beti deitzen baitu Karl-ek Hendaiatik edo irungo Aduanatik, eta ez du deitu... Gure Nikola aspaldi bere lagunekin kamioiaz besterik ez du hitzegiten, eta etxean goizetik gauera beste hizpiderik ez!... Gaur iluntzean etorriko dira hemengoak, usarioa denez gero, laster joan behar dugu denok Hiru erregeak herrian sartzen eta gero murruko estalpetxoan bere eskeintza egiten ikustera, eta oraindik Karl-en berririk gabe!...

Telefonoa!

Alaba izango da berriz Donostiatik, hau ere geu bezain arduratsu baitago... Eta ez, Karl bera da!... eta, zera, Bordelen geratuta dagoela goiza ezker, horko kamiolarien greba bat dela kausa, eta egun pare bateko kontua izango dela... Karl bera ere urduri... mutikoari esateko, Erregeak greban daudela, ulertuko duela, hainbeste gauza telebistatik ikus-entzuten duten haurtxo hauek edozer sinesten dutela gaur eta...

Eta egia da...

Baina hemendik ordu pare batera hemengoak, hemengo Gaspar, Meltxor eta Baltasar, sekula santan greba bat egin ez duten hemengo erregeak, hor agertuko dira!... Arazoa hau da; Garazirena konpontzea, hiru urte, erraza da, baina zer egingo diogun azken aldi honetan hain txintxo portatu zaigun zazpi urteko gure Nikolari?... Nork argituko dio gertatukoa!

Honek hamar, hoge!, buelta eman dizkit buruan, loak ezin hartu ni... Garazi txikia erraz konponduko dugu, baina... Amona bera ere lotan duen arnasik gabe dago, ez diot sumatzen, hau ere zerbaiten beilan dagola badakit...

Atea entzun aurretik amonaren ukalondoak esnatu nau, gero jaiki naiz abiadan, eta ate ondoan zai geratu naiz... bai, izenez deitu nau norbaitek, irekitzen dut atea eta han dago eskaileretako argitan blai Ixidro laguna gerriraino heltzen zaion pakete karratu baten ondoan.

"Ixo"... egiten dit berak, "hau Bordelen eman zidak Ximun-en semeak, kamioneroak, hire bilobarentzat dela eta gaur goizean bertan, heldu bezain laster, hiri entregatzeko... Orain ez nauk etxera joan, lehenengoa hauxe egin diat"...

- "Zer ordu duk?... galdetzen diot.

- "Goizeko lauak"...

- "Karl bera kamiolarien greban dagoela eta..."

- Bai, baina hirekin telefonoz hitzegin eta gero ezagunen bat ikusten ote zuen zai zegoela autopistaren sarreran... neuk, Bordeletik kotxez nentorrela, ikusi egin diet bera eta agurtu!... (Erregeak non nahi dauden!!!)... Beno, bete diat agindua... gabon!".

Utzi dugu kamiointzarra balkoian...

Amona eta ni ez gaitu orain loak berehala hartuko!!